

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, HONDARRIBIKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014.**

---

Joan den uztailaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Hondarribiko Udalaren, Hondarribia Lantzen, SA sozietate publikoaren eta Hondarribiko kultura ondarearen zaintze eta hedatzerako Arma Plaza Fundazioaren, zeina patronatuko kide den, ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiari dagokiona.

**Urteko kontuei** dagokienez HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz adierazi den Udalak ez duela oroitidazkian jasotzen Udalaren Kontuetan eragina izan zezakeen kontingentzia bat, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiaren aurrean jarritako erreklamazio batetik eratorritakoa, zeinaren ebazpena, 2015eko azaroaren 10eko epai bidez Udalaren aldeko izan bazen ere, apelazio bidez errekurritu den.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den **Kontu Orokorraren finantza egoera** aztertu du eta ondorioztatu du Udala **kaudimen ekonomikoko** egoeran dagoela, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko berezko baliabideak dituen.

Udalak 2014an **aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak** (ez du zorrik) **eta gastuaren araua bete ditu. Hondarribia Lantzen, SA**, berriz, desoreka finantzarioko egoeran zegoen 2014an eta honenbestez, TAOALen 9. xedapen gehigarriaren arabera, desegitea dagokio. Alabaina, 2015eko urriaren 29an Udalbatzak egindako bilkuran eta aldeztatik GFArekin adostuta, neurri hori geroratzeko erabakia hartu zuen, 1/2013 FAre 9.5 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Bai Udalak, bai Sozietateak eta Fundazioak ere, **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **legezko araudia**, nahiz Udalean akatsak azaleratu diren **Administrazioko Kontratazioaren** atalean; hala nola, hasiera batean esleitutako zenbatekoarekiko kontratu bat % 76 gehitu da, kontratuaren xedea eta bolumen ekonomikoa desitxuraturaz; beste kontratu bat aldatu da eta prezioa zein prestazioak aldatu egin dira, lizitazioan buru egin zuten pleguen preskripzioak urratuz; ekitaldian 1,5 milioi euroren egikaritutako gastua zuten lau zerbitzu luzatu dira, ezargarria zaion araudian aurreikusitako gehienezko epeak gaindituz; eta azkenik, kirol instalazioak

kudeatzeko bi kudeaketa kontratu aldatu dira, prestazioaren baldintza ekonomikoak sustraitik eraldatuz.